

KONTSULTA PUBLIKOA, KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGIN AURRETIKOA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Klima-aldaketari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen aurreproiektua egiteko prozedura egiten hasteko asmoa du.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 39/2015 Legearen 133. artikuluko 1. apartatuan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) ezarritakoaren arabera, lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin baino lehen, kontsulta publiko bat egin beharra dago, administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, bihar-etziko arauaren eragina gehien sumatuko duten norbanako eta antolakunde esanguratsuenen iritzia biltzeko gai hauen gainean:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Zein beharrezkoa eta egokia den araua onartzea.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ea beste konponbiderik badagoen arauketa erabiliz edo beste nolabait.

2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez onartu ziren arau mailako xedapen orokorrak aplikatzeko jarraibideak, zeinen bidez ezarri baitzen aipatutako aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorra izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak egin ahalko duela, iragarki bat jarriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan.

Aurrekoa betetze aldera, eta hura egin aurretik, honen bidez gonbidatzen ditugu herritarrak beren iritzia eman dezaten Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko den eranskinean jasotako informazioari buruz.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean.

Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria

Izpta. AITOR ZULUETA TELLERIA
(elektronikoki sinatuta)



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1CF3-MJK1 bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador <http://euskadi.eus/localizador>
Donostia 1 - Tel: 945 01 96 31 - Faxa: 945 01 98 56 - 01010 Vitoria-Gasteiz
J0D0Z-T1CF3-MJK1 en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

KONTSULTA PUBLIKOA, KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGIN AURRETIKOA

<p>EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>Klima-aldaketari buruzko arau bat egin nahi dugu, klima-aldaketari egokitzeko politika berrituaren oinarriak ezartzeko, eta modu horretan, garapen iraunkorra baliatuz, aurrera egiteko karbono gutxi erabiltzen duen ekonomia-eredua lortze aldera.</p>
<p>ZEIN BEHARREZKOA ETA EGOKIA DEN ARAUA ONARTZEA</p>	<p>Klima-aldaketa eta haren ondorioak dira gizon-emakume guztiok inoiz izan dugun erronkarik garrantzitsuena eta konplexuena. Izan ere, berotze globala lehentasunezkoa kontua da, ingurumenean ez ezik, zenbait eremutan ere eragina baitauka, hala nola biodibertsitatearen eta natura-ondarearen kontserbazioan, eredu ekonomikoan, mugikortasunean, ura eta baliabide naturalak lortzean, merkataritzan, elikaduran, lurralde-antolamenduan, azpiegiturretan eta osasunean.</p>
<p>ARAUAREN HELBURUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Negutegi-efektuko gasen isurketak murrizteko helburuak ezartzea, bai eta horretarako hartu beharreko neurriak ere, eta CO2ko hustulekuen edukiera handitzea. • Efizientzia energetikoaren helburuak ezartzea, eta energia berriztagarriak progresiboki ezartzea, energia-eredu iraunkorra lortzea sustatzeko. • Isurketak gutxitzeko helburuak ezartzea, bai eta estrategia sektorialak eta haiei dagozkien ekintza-planak egokitzekoak ere. • Aurrera egitea Euskadi klima-aldaketara egokitze aldera, arriskua kudeatuz eta erresilentzia hobetuz, egokitzapena sektore- eta lurralde-planifikazioan sartzearen bitartez. • Gobernantza-eremu bat definitzea, eragileekin hitzartutako ekintzan efikazia bermatzeko. • Arau-esparrua definitzea, klima-aldaketaren aurkako borroka eragindako politika publiko garrantzitsuenetan eta gizarte osoaren jardueretan sartzeko. • Mekanismoak eta tresnak ezartzea, klima-aldaketari, haren egoerei eta inpaktuei buruzko kalitatezko informazioaz hornitzeko.
<p>EA BESTE KONPONBIDERIK BADAGOEN ARAUKETA ERABILIZ EDO BESTE NOLABAIT</p>	<p>Aurreko apartatuetan azaldu ditugun arrazoiak direla-eta, gure ustez behar-beharrezkoa da gai hau berariaz arautzea, eta ez dago beste aukerarik gainera, araurik egon ere ez baitago.</p>